

Mugartea pintura taldea

90. hamarkardan sortu zen pintura taldea. Ekitaldirik ezagunena ekainean antolatzen duten Haize Zabaleko pintura lehiaketa.



-Zein urtetan sortu zen taldea?

1993an, Iñaki Aceña lehenengo lehendakaria izanik.

-Zenbat kide zarete?

35-40 lagun inguruk osatzen dugu taldea. Denetarik dago, batzuek margotu egiten dute eta beste batzuek lagundu. Talde kideen artean jende oso ona dago, esaterako, Jon Idigoras Estatu mailako akuarelistarik onenetakoa da.

-Zein maiztasunekin biltzen zarete, non?

Lobianon elkartzen gara astean bizpahiru aldiz. Talde kideak arratsaldeko 3retatik aurrera joaten gara eta iluntzeko 8ak edo 9ak arte egoten gara.

-Zeintzuk dira zuen helburuak?

Batez ere Ermuan pintura indartzea, Pintura Eskola sustatu eta garatzea. Egon badagoelako potentziala, eta batez ere gaztetxoen artean pintura sustatu nahi dugu, beti ere ondo pasatuz eta disfrutatuz.

-Urtean zeintzuk ekitaldi antolatzen dituzue?

Ikasturtean zehar, inguruko herrietako artistak ekartzen ditugu eta gure taldeko bazkideentzat ikastaroak antolatzen ditugu. Bestalde, gure lanekin erakusketak egiten ditugu eta ekainean Haize zabaleko pintura lehiaketa egiten dugu. Aurtengoa oso arrakastatsua izan

da: umeen modalitatean 45 lan inguru jaso genituen eta nagusien modalitatean 25 lan. Azkenik, bazkideekin irteerak ere egiten ditugu, inguruetara margotzera.

-Zuen taldean parte-hartzeko zer egin behar da?

Margotzeko gogoia eduki eta margotzea gustatzea da beharrezkoa. Ezer ez dakienarentzako, lehenengo Pintura Eskolara joatea aholkatzen dugu eta gero, gustatuz gero hemen badute tokia.

-Web orrialderik edo zuekin harremanetan jartzeko?

www.ermua.es orrialdean agertzen gara, herriko zenbait talderekin batera.

**OKINDEGIA
GOZOTEGIA**

san antonio

Izelaiaeta, 40 Tel. 17 00 63
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

AIZ

Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

GARAGARDOTEGIA

CERVECERIA

ZYTik

OTARTEKO eta
IMPORTAZIOZKO
GARAGARDOtan
bereizitasuna